

Sarrera

Saiotxo honen helburua San Andres Etxebarrikoan erabiltzen diren berba eta esamolde batzuen berri ematea da.

Izan ere, ekarria bikoitza izan liteke: lehenengoz, beste inon erabiltzen ez diren ele eta esapideak, galdu-aginean daudenak eta ez erabiltzeagatik gal litezkeenak ezagutzera ematea. Bigarrenik, aurrekoaren ondorioa delarik, berba eta eskune horien erabilera bultzatzea, komeni den neurrian eta eretia dagoenean, egunean-egunean erabiltzen dugun hizkuntza aberasteko.

Bestalde, berri-emailearen izena aitatuko dut, alde batera, eskerrak emateko eta, bestera, beraiek zeintzuk diren agertarazteko.

Denborari dagokionez, hona azalduko diren berba eta esamoldeak 1994ko urriaren eta azaroaren inguruan batutakoak dira, azkena izan ezik. Azken hori 1996ko urtarrilean entzundakoa da, baina jakingarri suertatu zaidanez gero, hona ekarri nahi izan dut.

Berba eta esamoldeak bizitzaren zein ingurutan erabiltzen diren jakiteari garrantzitsu deritzot; hori dela eta, neure kasa landu dudan sailkapena erabiliko dut.

A.— Heriotza

Miren Iriondo Satzu-barrikoari (Sarasua Barrikoari) jaso nizkion hemen heriotzaren gainean azalduko ditudan esamolde biak. Berak biak ezagutu arren, gehienbat lehenengoa erabiltzen du.

Egoera ondokoa da: gezur-mahaian¹ edo beste edonon dihardugularik, hilda dagoen norbaiten gainean gauza okerren bat esaten bada, inork berehalaxe erantzungo dio: «*Ez da egoki ildakoei eraittie*» (ez da egoki hildakoei eragitea). Esamolde zuhur eta jakingarria, alajaina.

Bada, esamolde horren antzeko bat ere entzun daiteke horrelako eretietan: «*Ez da ondo ildakoei eraittie*» (ez da egoki hildakoei eragitea).

Joskeraren egituraren aldetik badute esamolde biek berdintasun bereizgarria; egin-eginean ere, eraikuntza *izan* aditzarekin eta *adberbio* batekin egiten da: *ez da egoki* eta *ez da ondo*. Itxura denez, antzinako esamolde ihartuaren aztarnak ageri dira hor.

Eta esamolde ihartu hori esakune legez hartu behar da; gaztelaniaz berak duen parekoarekin alderatuz gero (*no está bien hablar mal de los muertos*), ezberdintasunak agerikoak dira: aditzaren aldetik lehenik; ondorik, gaztelaniaz *hablar de* esaten den bitartean, euskaraz *-ri eragin* erabiltzen da; baina hori ez da nahikoa, ezik euskaraz *eragin* horrek hartzen du gaztelaniaren *hablar mal de*.

B.— Gizartea eta Zuzenbidea

Patxi Guenaga Atzoin-zabalgo (Assorin-zabalgo) semeari entzun nion ondoko esamolde ederra: «*Bertora eittie*» (bertora

¹ *Gezur-mahai* deritzo lagunek autuan jarduteko erabiltzen duten bigirari. Kontua ez da gezurra esatea; hau da, gezurra esan arren, hori ez da beharrezkoa gezur-mahaian aritzeko. Horrelako egoeretan, jakina denez, asmoa bertan ez dagoena larnutzea da.

egitea). Horrekin aditzera eman nahi den kontzeptua gaztelaniazko *amoldarese a, acostumbrarse a* eta antzekoek adierazten dutena da. Gaztelaniazko morrontzaren edo harremanen eraginez, euskaraz gaur egun gazte jendearen artean batik bat, *obituratuxen* ondoan *norbera moldatu* eta gisakoak entzuten dira. Bada, hor dago esapide guztiz ederra buruera hori azaltzeko.

José Ondarrak [Txispio, Arnorixa (Arnorriaga) edo Aizte (Arejita) ezizenak dituenak] eman zidan gizartearekin zerikusirik eta Administrazioarekin lotura zuzena duen berbakatearen berri: *«bigarren alkatie»*. Gizonez Etxebarrikoa izanik, elizaz Larruskaingoa den Amillara-goikoan *El Patriarca* fundazioaren gazteak daude. Hor dauden gazteek diru bila jo zuten Etxebarriko Erberara. Orduko hainbat arazo jazota zeudela eta, bertoko seme batek honetara esan ei zion Jainkoaren izenean ziharduenari: *«Bestolako zozer pasetan bada, bigarren alkatiana jokot, zeuon barri emoteko»* (antzeko zer edo zer pasatzen bada, bigarren alkatearengana joko dut zeuon berri emateko). Hor azaldu da *bigarren alkate* esamolde eder hori, gaur egun Administrazioan erabiltzen den *alkateordearen* parekoa. Esamolde hau, beharbada, ez da gaur egun erabiltzekoa maila batzuetan, baina ederra ez ezik, hizkuntza orokorrerako bezala teknolektorako aberasgarria da, sinonimo legez erabil litekeen neurrian.

C.- Gorputz-atalak eta osasuna

Egia esan, hona azalduko ditudan berbak ez dira erabat ezezagunak izango; hala eta guztiz ere, jakingarriak direlakoan nagoenez gero, bertora doaz, horien berri izan dezazuen.

Bat aitatuko dut beren beregi, nire aburuz, oso berezia baita: Jose Maria Etxaniz Gandixerrotako (Gandiaga-errotako) semeak esandakoa: *begiko santua*. Izan ere, begian santurik ba ote genuen ez genekien, baina erraz antzeman daitekeen zerbait da. Gaur egun *begi-niniaren* sinonimoa da. Hizkuntza,

etnografia eta beste hainbat alderditatik berba ederra dugu, galdu beharko ez genukeen!

Osasuna denaz bezanbatean, Miren Iriondori hartu baina Etxebarrian mundu guztiak oraindik erabiltzen duen berba bat ekarri nahi dut hona. Perretxikoen mundukoa da berba berezi hau: *sapuana*. Horren bidez, aditzera eman nahi da gaztelaniaz esaten den *seta no comestible*. Baina hori ez da baieztapen zehatza. Alegia, *sapuana* norberak jaten ez dituen perretxiko guztien multzoaren adierazbidea da. Baliteke perretxikoa jatekoa izatea, baina norberak ezagutu ezik ez du hartzen. Zelan bueltatu hori beste hizkuntzetara? Gure albo-hizkuntzetara, bederen, gaitz.

D.– Beste hainbat esaera

Atal honetan, euskararen aldetik aberasgarriak diren berba eta esamoldeak, eremu guztietan erabil litezkeenak, gogorarazi nahi ditut. Ez ditut guztiak azaldu nahi, ez bada honetarako aukeratu ditudanak. Bost dira guztira, baina erabat jakingarriak:

a.– «*Ez jo!*». Egixarreko (Egierreko) semea den Patxi Salaberriari ikasi nion esaera berezi eta indartsu hori. Hori gaur egun zabaltzen ari den «Joko ez du, ba!»-ren parekoa da. Esamolde hau hizkuntza idatzirako barik, apika, hizkuntza mintzaturako egokiagoa da. Hau da, ikus-entzunezko inguruan erabil litekeena.

b.– *Aren baten*. Miren Iriondori entzundakoa. Esapide honen esangura *antzeko xamar* esamoldearen parekoa da. Erabilera honetara da:

– *Zelan ibili dira umeak menditik?*

– *Kepa-eta ondo; txikienak ere, indar gutxiagokoak izanda ere, aren baten ibili dira.*

c.– *Gela iluna*. Karmen Aretxaga Ezenarro bergararrari gure baserri Atzoinen (Assorinen) entzundakoa. Berau bergararra

izanik ere, amaren aldetik Atzoingoa da, beraren ama bertoko alaba zen-eta. Ez dakit esamolde hau Etxebarriko amari ikasi zion ala Bergaran ere eskuarki erabiltzen den. Edozelan ere, esamolde horren berezitasuna adjektiboaren erabilieran datza. Izan ere, hemen *ilun* adjektiboak aditzera eman nahi duena gelak leihorik ez izatea da.

d.- *Eskulekua*. Miren Iriondori entzuna. Gaztelaniazko *empuñaduraren* ordaina. Ez da berba bakana, baina bai ederra. Horrexegatik ekarri nahi izan dut hona.

e.- *Bixamonaguen (biharamunagoan)*. Juan Guenaga Adringo (Ardidengo) semeari entzuna. Honen bitartez, biharamunaren biharamuna eman nahi da aditzera. Denborari dagokionez, iraganean erabilia entzun dut beti, baina ez dut uste arazorik egon litekeenik geroaldian ere erabiltzeko. Ahuntz kontuetan ziharduela, antxume bat galdu zitzaiola esan zigun, eta beraren bila abiatu zela kontatu ondorik: *Astelebenean igo genuen mendira antxumearen bila, baina ez genuen topatu, biharamunean ere etorri ginen, bai eta biharamunagoan ere.*

Hasieran aitatu bezala, xumea da saiakera honen xedea, baina bazterretan galdu-aginean dauden formak ezagutu, berreskuratu eta zabalztea gure eginkizuna dela uste dut. Gure baitatik atera dezakeguna erabili behar dugu, bestela badakigu zer jazotzen den: kanpoko hartu, sarritan esamolde askozaz takarragoa dena, eta hizkuntza ezarian-ezarian galtzea.

Anjel Lobera Revilla

Etxebarrian, 1996ko apirilaren 21ean